

Ekaineko zerbitzuetan izena emateko epea

-Jangela: Ekainaren 5etik 21era eskolak goizez izango diren horretan, jangela-zerbitzuaren erabilera egingo duzuen edo ez jakin nahiko genuke. Hori dela eta, **maiatzaren 26a baino lehen [galdetegi honi](#)** erantzutea eskatzen dizuegu.

-Arratsaldeko zaintza: ekainaren 5etik 21era Ageri-aldeko eraikinean, goizeko zaintza egiten den gelan, arratsaldeko zaintza-zerbitzua eskainiko da 14:30etik 16:30era, baldin eta gutxieneko kopurua osatzen bada.

Zerbitzuan izena emateko [galdetegi hau](#) **maiatzaren 26a baino lehen** bete, mesedez.

Edozein zalantza edo argibidetarako usurbil@ikastola.eus helbidera zuzendu.



Zirimara: ate irekiak

Datorren ikasturtean LH 1 eta LH 4 mailen artean egongo diren ikasleei zuzenduta, Zirimarak, **ate irekiak** ekitaldia antolatu du. Zirimara familian aukera ere probatu ahal izango da. [Informazio gehiago...](#)



Zirimara: izen-ematea

Maiatzaren 15etik 26ra Zirimara familian (HH 0 – 5 urte), Zirimara (LH1 – 4), multikirola (LH5 – LH6), esku pilota (LH1 – DBH2) eskubaloia (DBH1 – 2) eta futbola (DBH1 – 2) izena emateko epea irekiko da. Horretarako, [galdetegi hau](#) bete beharko da eta bertan [baimen orri hau](#) bete, sinatu eta ordainketa ziurtagiria txertatu behar dira. Hemen dituzue eskaintza bakoitzaren [ordutegi eta kuotak](#).



Liburutruk 2023/2024

ZER DA LIBURUTRUK?

Sistema honen helbururik nagusia testu-liburuak ahal den ikasturte gehienetan berrerabiltzea da. Hitz Aho Guraso Elkartea eta Ikastolaren artean koordinatuz egiten da. Ikastola liburuak eskatu, familiei kobratu eta ekaineko azken egunean liburuak jasotzeaz arduratzen da. Bestetik, Hitz Aho Guraso Elkartea liburuak sailkatzeaz arduratzen da. Sistema hau erabiltzeko arrazoiak:



1- Seme-alaben heziketa hobetzea: zenbait balore garatzen lagunduko diegu; besteekiko elkartasuna, guztien gauzak zaintzeko joera, komunitatearekiko lotura, kontsumo arduratsua eta inguruarekiko errespetua,...

2- Ekonomikoa: parte hartzen duten familiek liburuetan gutxiago gastatuko dute. Berrerabilgarriak diren liburuen zati bat ordaintzen delako.

3- Ekologikoa: liburuak berrerabiltzeak paperaren kontsumoa eta sortutako zaborra gutxitzen du.

Sistema hau LH5. mailatik gorako ikasleentzat da. Beraz, **ikasturte honetan LH4. mailan dagoen norbaitek ez balu parte hartu nahi, usurbil@ikastola.eus helbidera mezua idatzi beharko luke maiatzaren 26a baino lehen. Gainontzeko mailetakoen kasuan, mezua aldaketarik balego soilik idatziko da.**

Gogoratu, behin Liburutruken sartuz gero ezingo dela irten, bestela, ordura arte baliatutako hobarien itzulketa egin beharko zaio ikastolari.

Antolaketa honen baitan, hurrengo ikasturteen amaieran, liburuak Ikastolan utzi beharko dituzue eta hurrengo ikasturteetako liburuak eskuratzeaz Ikastola eta HITZ-AHO arduratuko dira.

Ekainaren 16an, parte hartuko ez duela adierazten ez duen familia guztiei, **60 €-ko fidantza** kobratuko zaie eta gerora ez da bueltatuko, ez duela parte hartu nahi esaten badu ere.

Herri Urrats 2023

Gogorarazten da aurtengo Herri Urrats **igande honetan** ospatuko dela Senperen. [Informazio gehiago...](#)



Ibilaldia 2023

Aurten Ibilaldia Ondarroako Zubi Zahar ikastolari dagokio antolatzea eta **maiatzaren 21ean** ospatuko da. [Informazio gehiago...](#)



HAUR HEZKUNTZA

Ipuin kontaketa Sutegin

Maiatzaren 18an, osteguna, Miriam Mendozaren ipuin kontaketa emanaldia izango da, 18:00etan, HH4ko ikasleentzat, Sutegi Liburutegiak antolatuta.

Animatu parte-hartzera!



LEHEN HEZKUNTZA

Irteeren kobrantza

Datorren ostiralean, maiatzaren 19an, LH 3. mailako ikasleek Irrisarrilandera egindako irteeraren 3. zatia kontu korronte bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kostua **30,40 €** izango da.



DBH

DBH 3 irteera

Maiatzak 17an (DBH3A eta DBH3C) eta maiatzak 18an (DBH3B), Biologia-Geologia arloko edukiak lantzerantz joango gara Donostiako Martutene auzoan dagoen HONDAKIN UREN ARAZTEGIra ikasirteera batean. Zuen seme-alabek egitaraua eta baldintzen berri badute, baina ez ahaztu puntualak izan, "Mugi" garraio-txartela zein hamaiketako goxoa eramateaz.



DBH 4 irteera

Datorren astelehenean, maiatzak 15, DBH 4ko ikasleek irteera izango dute Donostiara Oroimen Historikoaren Ibilbidea ezagutzera. Irteera egun osokoa izango denez, bazkaria eramatea komeni da. Trenz joango gara, beraz, Mugi txartela eramatea eskatzen da.



DBH 4ko familiei oharra

Gogorazten dizuegu 2023/24 ikasturterako Lanbide Heziketako aurre-matrikula epea **maiazaren 8tik 26ra arte dagoela zabalik.**

